

Eibarko Udal Artxiboak ezagutzera eman ditu Iruñeko Kartzela Probintzian 1934 urteko urrian atxilotutako 238 eibartarren izenak.



Historikoki **Greba Iraultzaile Orokorra edo 1934ko Urriko Iraultza** izenez ezagutzen diren Espainiako gertakarien 85. urteurrena betetzen da urrian.

Eibarko Udalaren Artxiboak, gure herriak efemeride historiko hartan eduki zuen garrantzia kontuan izanik, aditzera eman nahi du dokumentu bat, zeina egun haietan gertatukoaren lekukoa baita: hil hartan Iruñeko Kartzela Probintzian egondako eibartar preso izenen zerrenda, hilaren 5ean armagintza herrian izandako gertaerak zirela-eta hara eraman zituztenak. Datuok Nafarroako Errege Artxibo Nagusia dagoen agiri originaletik hartutakoak dira.

Dokumentuak argi eta garbi azaltzen ditu 238 pertsonen izen eta abizenak —haien artean 4 emakume—, 1934ko urriaren 31n Iruñeko Kartzela Probintzian zeudenak, Auzitegi Militar Berezi baten eskuetan. Halaber, adierazten du bakoitza zein egunetan atxilotu zuten eta zein egunetan atera ziren libre, hil hartan bertan, atxilotutako 59.

1933ko urriko hauteskunde orokorren ondoren, Alderdi Errepublikano Erradikalak gobernu osatu zuen, Alejandro Lerroux bere liderra zela eta gorteetan CEDAren laguntzarekin. Hurrengo urtean, urrian, eskuineko alderdiek Alderdi Errepublikano Erradikalari laguntza parlamentarioa kendu zioten eta gobernuan parte izatea eskatu zuten. Hori dela eta, Alcalá Zamora Errepublikako lehendakariak adierazi zion Lerrouxi bere gabinetean Eskuineko Alderdi Elkarteko hiru ministro jartzeko. Hala ere, ezkerreko alderdiek ez zituzten izendapen hauek onartu, bereziki PSOEk, zeinak UHTrekin batera greba orokorra deitu zuen herrialde osoan. Greba modu iraultzaile batean egin zen 1934ko urriaren 5etik 12ra bitartean.

Gure herriari dagokionez, gertaerak urriaren 5ean hasi ziren goizeko lau eta erdietatik aurrera, tren geltokiaren inguruan militante sozialisten eta guardia zibilen artean tiroketa bat izan zenean. Hortik aurrera, beste gertaera hauek izan ziren: Guardia Zibilen Kuartelari eraso zioten, Armeria Eskola okupatu zuten, Espainiako Arma eta Munizioa Elkartearen lantegiari eraso zioten, Carlos Larrañaga Eibarko Circulo Tradicionalistaren lehendakaria erahil zuten, Arma probalekuari eraso zioten, eta guardia zibilek eta asalto guardiek osatutako tren konboi bat tirokatu zuten. Hala ere, egun horretan arratsaldeko ordu bata inguruan matxinatuen artean etsipena nabaritzen hasi zen. Mugimendu iraultzailea ez zen Espainia osoan garaitzen ari, eta herrian indar publikoek aurre egiten jarraitzen zuten. Gainera jakin zen bi infanteria konpainia zetozela Gasteizetik Eibarrera matxinadarekin bukatzeko. Arratsaldeko ordu bietan, errendizioaren bandera zuria jarri zuten udaletxeko balkoi nagusian.

Eibarko Udal Artxiboa